

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Liburuaren egunean liburu salmenta eta kontzertua Saroben Lappa, Lear eta Bi Zaldi taldeekin

2017ko apirilaren 7a, 519 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

APIRILAREN 29AN URNIETAN

Merezitako harrera Korrikari

Joan zen asteartean jendetza atera zen kalera, Korrikarekin bat egitera.

Tolosaldetik Hernanirako bidean, Korrika astearte goizean Andoaindik eta Urnietatik igaro zen. Bi herrietan ere jendetza irten zen Korrikarekin bat egitera. Lekukoa eramaten bi herrietako gizarte mailako eragileak, eta haiek segika ehunka eta ehunka pertsona. Igandean amaituko da Korrika, Iruñean.

[ESKUALDEA, 6-7. ORRIALDEAK]



Zanpatuz mendi elkarteko Aiur eta Patxi kideek herrigunera gerturatu zuten lekukoa, Urnietan.

Benantzio Laskibar Egapeko sortzaile taldekoa

Urnietan apaiz izandakoa, urte asko dira Bizkaian bizi dela. Duela 50 urte Urnietako ikastolaren sortzaileetakoa izan zen. Orduko garai haiek biziberritu ditu Aiurri astekariari eskainitako elkarrizketan.

[URNIETA, 2-3. ORRIALDEAK]

Urkiren udaberriko dantza saioa



Saio ikusgarria eskaini zuten Urki dantza taldeko kideek, joan zen igandean.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

ESKERRIK ASKO ANDOAIN

Andoaingo AEK

AEK-k Andoaingo herria, Andoaingo herritar euskaltzaleak zoriondu nahi ditu, KORRIKA 20ri hain harrera bero, jendetsu eta hunkigarria egin diolako. Horrelako harrera beroa ez da hutsetik sortzen, alde zaurretik dozenaka lagunek egin duten lanaren ondorio da, eta horiei eskerrak ematea ezinbesteko egiten zaigu.

Hasteko, azken hiru hilabeteetan gurekin lanean eskuz esku aritu diren Korrika batzordeko kideak eskertu nahi ditugu. Haien ideia, ekarpen eta laguntza gabe ezinezkoa izango litzazuke Korrikaren inguruan antolatatu ditugun ekimenak burutzeko.

Andoaingo Udalari, herrian ekimen horiek egin genitzan bitartekoak eskaini dizkigulako maila ekonomikoan, teknikoan zein humanoan. Korrikako kilometro-

ak lagundu dituzten gizarte talde, kirol taldeak, enpresak... ere ezin ditugu atzean utzi, hauek baitira benetan Korrika egiten dutenak. Dozenaka andoaindarrek ahalbidetu dute euren taldeetan Korrikako kilometro bat laguntzea, dela talde moduan, dela norbanako moduan, talde barruan, diru bilketa egiten... Herriko denda, taberna eta enpresak ere eskertu nahi ditugu, laguntza eske joan garenean eskuzabal hartu gaituztelako.

Ezinezkoa da lagundu diguten guztiak banan bana izendatzea, norbait atzean uzteko arriskua hartuko baikenuke. Andoain, Korrika dela eta, laguntza, parte hartze eske joan garenean, ia ate guztiak zabalik aurkitu ditugu. Beraz, uste dugu Andoaingo herria, Andoain zorionduta, denak kontuan hartzen ditugula.



Andoaingo San Esteban-Goiburu auzuneko kideak lekukoarekin. Santa Eskean Korrikaren aldeko diru bilketa egin zuten.

EUSKARAZ BIZITZEKO HURRENGO URRATSA

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

APIRILAREN 6TIK AUTOLIKIDAZIOA ONARTZERAKOAN, SAKATU EUSKARAREN AUKERA

Informazio gehiago:
<http://euskara.buruntzaldea.eus>
Albistea elkarbanatu eta opariak eskuratu!
Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil
UDAL EUSKARA BATZORDEAK



ELKARRIZKETA

Benantzio Laskibar, Egaperen sorreran ezinbesteko eragilea

Benantzio Laskibar 1935eko azaroaren 22an jaio zen Zumaian. Lau anaia-arrebetatik, bigarrena. Apaiz egindakoan Urnieta izan zen bere destinoa. Bertan egin zituen 9 urte, eta ezinbestekoa izan zen bere

lana Egape ikastolaren sorreran. Sotana zintzilikatu eta Pakita Lizarribar urnietarrarekin ezkondu zenetik Bilboko Santutxu auzoan bizi da. Bi alaben aita da. Aiurriri kontatu dizkio bere bizipenak.

Nolakoa zen zure haurtzaroko Zumaia?

Benantzio Laskibar: Tren geltokiaren auzoko kale-baserri batean jaio nintzen, eta auzo hartan giro euskalduna bazen ere, Zumaia kalean erdal giroa zen nagusi. Kalean euskaraz egiteko belduraren beldurrez.

Eta bertako eskolaz zein oroitzapen dituzu?

B.L.: Txikitik monjetan ibili nintzen, dena erdaraz zen. Ez nuen tutik ere ulertzen. Han ikasi nuen katoia irakurtzen buruz, zer esaten nuen jakin gabe. Goizetan eskolara bidean, Guardia Zibilaren kuarteletik pasatzerakoan haien "Cara al sol" kantatzeko orduarekin kointziditzen zuenetan guk ere kantatu behar izaten genuen, kalean geldituta.

Eta handik zein eskolara pasa zinen?

B.L.: Gogoan dut Zamorako Toro herriatik ekarri zituztela "Padres Mercedarios" ordenekoak, nonbait Zumaian zibilizazioa sartzeko. Ni ere Mercedarioetara joan nintzen. Aurrez Maristak zeukaten eraikineria etorri ziren. Maristak kanporatuak izan baitziren. Han egoten nintzen eskolan isil-isilik. Errekrean euskaraz egiteagatik zigortzen ninduten: "Contra la pared". Jolas garai gehienak paretari begira pasa nintuen. Notak oso txarrak izaten ziren, eta gogoan dut aitak, galdetzen zidala, nola ekarri litezkeen hain nota txarrak. Halako batean ausartu nintzen egia esatera: "Aita, han, erdaraz egiten digute eta nik ez dut ezer ulertzen. Eta gainera, errekreio denboran beti zigortuta egoten naiz." Egun berean aita joan zen Zarautzeko La Sallekoekin hitz egitera eta hara pasa ninduten 8 urterekin. Han, dana euskaraz eta gero erdaraz egiten zidaten eta oso nota onak ateratzen hasi nintzen.

Noiz erabaki zenuen apaiz izan behar zenuela?



Sabina Arruarte, Anselmo Unanue, Xabier Larretxea eta Benantzio Laskibar joan zen irailan ikastolan bertan sortzaileei egin zieten omenaldi-ekitaldian.

B.L.: Bagenuen osaba bat apaiza zena, "osaba obispoa" deitzen genion. Zumaia Artadi eta Oikia auzoetako erretorea zen. Agian, haren eraginez, edo baliteke misiolari izateko burutazioak ere izaten nintuelako. Hori ulertzeko garaiko giroan jarri behar da.

Eta non hasi zenituen apaizgintzako ikasketak?

B.L.: Saturraranen hasi nintzen, eta han egin nituen 3 urte. Ondoren, Donostiako seminarioa inauguratu zuten eta bertan egin nituen beste 7 urte.

Nolakoa zen Saturraranen topatu zenuen giroa?

B.L.: Oso ona, bazeuden lau irakasle euskaldun peto-petoak zirenak, besteak beste, euskal kantuak erakusten zizkigu-

ten. Bat bagenuen berezia zena (Don Andoni) ondarrutarra bera, barkuan ere ibiltzen ginen harekin, hori bai kostako herrietakoak ginenak soilik. "Siete playas" deituriko hondartzatxo bakarti batzuk badira handik, eta haietara ere joaten ginen berarekin. Orduan hondartzan gorputza nahiko estalita ibili beharra zegoen, batez ere seminaristak, eta harekin joandakoan biluzik bainatzen ginen. Gauetan izarrak ikustera ere eramaten gintuen, hondartzan etzanda jarri eta Casiopea non zegoen erakusten zigun. Bazuen izar multzo bat: "La delantera del Athletic". Han hasten zen, Iriondo, Panizo, Zarra aipatzen.

Saturrango apaiztegia, aurrez emakumeen kartzela ere izandakoa zen...

B.L.: Bai, eta Saturraranen egon ginen ur-

teetan ez ginen enteratu han emakumeen kartzela izan zenik, pentsa norainoko zentsura zegoen. Harritzen nau Don Andonik ezer esan ez izanak. Askoz beranduago jakin nuen hantxe bertan, 1938-1944 urteen artean, kartzela egon zela, eta 116 emakume eta 56 haur bertan hil zirela. Jakin nuen, inguruan bizi ziren askok ere ez zutela jakin berandutxo arte ondoan kartzela bat izan zutenik.

Nolakoa zen eraiki berria zen Donostiako seminarioa?

B.L.: Donostiara joan ginenean giroa erabat aldatu zen. Guretzat infernua zen. Han erretorea frankista zen, eta dena erdaraz zen. Jolasteko lekuri ere ez genuen bertan. Tarteka, sotanak jantzita, Ondarretako hondartzara futbolera jolastera jaisten ginen.

ELKARRIZKETA

“Trailean sortzaileoi egin ziguten omenalditxora hurbildu nintzen Urnietara. Alde batetik urduri, baina bestetik pozik nirekin akordatzan direlako”

Donostiak zer oroitzapen dakarkizu?

B.L.: Oroitzapen on bakarra daukat, Jose Antonio Agirre 1960an hil zenean. Artzain Onaren katedralean bere aldeko meza bat egin zuten, eta seminariotik talde bat ihes egin eta meza hartara joan ginenekoa. Handik gutxira jakin zuten, izugarrizko bronka bota ziguten eta “markatuta” geratu ginen, baina ez zen hortik pasa eta gustura geratu ginen. Hori bai, denboralditxo batean errekreorik gabe izan ginen.

Behin apaiztuta, non izan zen meza berria?

B.L.: Zumaian, Eguberri eguna zen. Gutxitan bezala egin zuen elurra. Ordurako gaixo zegoen gure aita ere Zumaia elizaraino eramane zuten. Ikargarrizko ilusioa egin zion. Ondoren, Zumaian bertako Uranga hotelean bazkaldu genuen. Jende dexente etorri zen.

Aita aipatu duzu. Gerra garaian asko sufritutakoa izan al zen?

B.L.: Nazionalista ezaguna zen. Lizarran kartzelan egon zen hiru urtez eta fusilatze kotan ere eduki zuten. Zumaiaiko parrokoa, frankista zen baina beste hainbat baino gizatasun gehiagokoa, eta gure osaba apaiza laguna zuenez, haien bitartez moldatu zuten dena, aita heriotz zigoretik libratzeko. Gerora jakindu zuen nor izan zen salatarioa, eta gainera, pertsona hori nire meza berrira etorri zen muin ematera. Lizarrako bizipenez hitz egiten zuenean kapitan frankista bat nola goraipatzen zuten harritzen ninduen. Dirudienez, gizalege osoz jokatzan zuten, eta bere menpe zituen agintariak ere horretara behartzen zituen.

Zein izan zen Benantzio apaizaren lehenengo destinoa?

B.L.: Urnieta. 26 urterekin. Ordurako bi apaiz zeuden bertan, Dionisio Telleria parrokoa, eta Jose Inazio Zugasti. Sakristiako ate aurrean zegoen Maria enea etxean Jose Inazio eta biok bizi ginen, parrokoa berriz, gaur ere erretoretxea bezala ezagutzen denean. Derri gorrezkoa zen neska mea edukitzea, eta aurrena bana jarri baziguten ere, berehala biontzako bakarra izatera pasaginen.

Nolako Urnieta aurkitu zenuen?

B.L.: Baserri girokoa, eta Zumaia baino euskaldunagoa, herrigunea bera oso txikia zen, dena baserria zen. Ondoren, Urraka auzoa nola eraiki zuten ezagutu nuen, Arantzibia ingurua ere bai.

Zein izaten zen zuen lana garai haietan?

B.L.: Udaberrian baserri-baserri joaten ginen: Soroak animaliak, etxeak, ura..., dena bedeinkatzen genuen. Askotan monagillo batekin joaten ginen. Herriko ba-



serriak hiru zatitan banatuta geneuzkan, hiru apaizon artean. Gogoan dut oilaskoak eta abar ematen zizkigutela. Nire Lambreta motoarekin ibiltzen nintzen. Baina nire kuttunak gaixoak ziren, eta haiei bisitaldia egiten asko ibilitakoa naiz. Tarteka ospitalera joaten banintzen ere orduan, ia gaixo denak etxean egoten ziren. Noiz edo noiz meza ere ematen nien logelan bertan. Orduan apaizak sotanarekin ibiltzen ginen baina nik laister utzi nuen sotana, oraindik etxean badaukat ere. Inauterietarako eskatzen didate.

Zenbat meza izaten ziren igandetan?

B.L.: Goizeko 06:30ean aurrenekoa, 06:00tan hasten ginen konfesatzen, 08:00tan, 10:00etan eta abar. Eguneroko mezak berriz, bi: Bat parrokin eta bestea mojanen.

Hiletak goizean egiten ziren garaia ezagutu al zenuen?

B.L.: Bai. Hamaiketaren izaten zen hiletak, eta ondoren, hamaiketakoa edo bazkaria. Gero arratsaldera pasa eta guzti hori galdu zen.

Gaia aldatuz, aipatuko al zenizkiguke Egape ikastolaren sorreran izan zenituen bizipenak?

B.L.: Euskal giroa zabaltzeko premia ikusi zen herrian, batez ere, erdaldun multzo handi bat etorri zenetik. Hasierako bileretan parte hartzen zutenak herrigunean bizi zirenak ziren. Baserriko jendea ez zen arduratzen, ez zuten beharrik ikusten, aldiz, herrian bizi zirenak horren beharra sentitu egiten zuten. Bertako jendea ere erdaraz ari zela ikusteak sortu zuen ondoeza. Horrela biltzen hasi ginen: Maria Kaxeta, Antselmo Unanue, Sabina Arruarte, Manuel Igerategi, Xabier Larretxea eta beste hainbat. Ordurako inguruan ikastola batzuk martxan ziren eta Urnietak ere berea behar zuela erabaki genuen. Lekua? Has gintezkeela sakristian, eta ondoren “Zentruan” moldatuko ginela. Irakasleak nondik ekarri? Eta ikasleak? Erantzun zaileko mila galdera. Gauza da, nola edo ala martxan jartzeko modua egin genuela.

Badirudi energia handiko taldea osatu zenuela.

B.L.: Bereziki indar handia zuten Xabier Larretxeak eta Sabina Arruarteak, haiek nolabait guztien animoa goian mantentzen zuten. Lokala lortzeaz arduratu nintzen ni. Parrokoak gauza horietaz ez baitzuen ezer jakin nahi izan.

Eta lortu zenuten ikastola martxan jartzea.

B.L.: Hasieran legezatu gabe izanik ere, lortu genuen abiatzea. Gehiena harritzen ninduen gurasoek gurekiko zuten konfidantza zen. Umeak gure esku nola uzten zituzten, ezer egon gabe, inongo etorkizunik gabe. Guk ere ez baikenuen argi proiektuak etorkizunik izango ote zuten, ala ez.

Legezatu gabe izanik, garaiko Guardia Zibilen bisitaldiak jasoko zenituzten?

B.L.: Urduri ibiltzen ginen beti. Etengabe etortzen ziren, ea non zen ikastola hori galdezka. Eta behin baino gehiagotan umeak Zentrotik hartu eta sakristian ezkutatzan nituen. Noizbait armairuetan ere sartu izan nituen. Proiektu hura salbatu beharra genuen. Txibato propioak ere bagenituen, bat, Martxeli Gorriti: “Don Benantzio, badatozela!, Bestea, Terexa Isasa, karamelu saltzaila, San Juan plazako iskin batean egoten zena. Hura ere, adi-adi egoten zen, eta Guardia Zibilak ikusi orduko abisua pasatzen zigun. Hori aurreneko urtean izan zen gehien bat, gerora, pixka bat normalizatzen joan zen dena. Hori bai, denbora batean, Andoaindik etortzen ziren azterketak umei egitera, edo bestela, umeak hara eramane behar izaten genituen azterketak egitera.

Ikas-materiala nondik lortu zenuten?

B.L.: Andoaindik eta Hernanitik ekarritako zerbait. Kalera ere askotan ateratzen genituen, Xoxoka aldera eta abar. Dirua lortzeko denetik egiten zen: Tonbolak, taberna..., neu ere, apaiz nintzelako edo, lan horretan aritzen nintzen batekin eta bestearekin hitz eginez, gremio ezberdinei lanak eskatuz; baita gu-

“Ezagutu nuen Urnieta baserri girokoa zen. Herrigunea bera oso txikia zen. Ondoren, Urraka auzoa nola eraiki zen ezagutu nuen, Arantzibia ingurua ere bai”

rasoei umeak gurera ekartzeko eskatuz ere.

Elbira Zipitriaren laguntza ere jaso zuen proiektuak.

B.L.: Hark ideiak ematen zizkigun. Akordatzan naiz behin Xabina eta biok Donostiako bere etxera joan ginela. Oso gogor hartu gintuen, dardarka ateraginen. Alde batetik animatzen gintuen, baina bestetik, oso arau zorrotzak jartzen zituen.

Poz handia emango dizu 50 urte geroago Egape nola dagoen ikusteak?

B.L.: Bai, ez dut oraingo berri zehatzik, baina badakit martxa onean doala, eta orduko esfortzuak merezi izan zuela ikustea ederra da. Irailean sortzaileoi egin ziguten omenalditxora hurbildu nintzen Urnietara. Alde batetik urduri, baina bestetik nirekin akordatzan direlako pozik.

Eta halako batean sotana betirako erantzi eta Pakita Lizarribar urnietarrekin ezkontzeko ordua iritsi zitzaizun.

B.L.: 1971n izan zen, Bilbon. Tasio Erkizia gure lagunaren etxeko sukaldan ezkondu ginen. Esanda genuen zein elizatan ezkonduko ginen, eta argazkilariak eta abar bertaratu ziren. Alferrik. Parrokiko apaiza *konpintxatuta* baikenuen, ezkontza etxean egiteko. Zeresan handia eman baitzuen garai hartan gure harremanak.

Nolako jarrera erakutsi zituzten urnietarrek?

B.L.: “Ume mimatua” izatetik “deabru hutsa” izatera pasa nintzen Urnietan. Tasio ezagutzen genuen, eta haren bitartez etorri ginen Bilbora.

Zein izan da zure lanbidea?

B.L.: Santurtzin portuan hasi nintzen zamaketa lanetan. Gogorra izan zen, deitzen joaten ziren zerrenda eskuetan, eta sarritan han geratzen ginen lanik gabe hurrengo barkuaren zain. Gero, pintura fabrika batean aritu nintzen, eta ondoren, jubilatuta bitartean, Formica Españolan.

Santutxuko Karmelo ikastolaren sorreran ere lanean aritutakoa zara.

B.L.: Bai, adreiloak jartzen eta denetik. Zortzi orduz lan egin ondoren, beste lau ordu bertan ematen nituen lanean.

Nolakoa da Santutxuko giroa?

B.L.: Nongoa sentitzen naizen galdetzen badidazu, Santutxuko esango dizut. Bilbo erdira apenas jaisten garen, eta Zumaira ere gutxitan joaten naiz. Geroz eta giro euskaldunagoa somatzen da, baina ikasten dutenei kalean egitea kosta egiten zaie.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Apirilak 8: Iritsi behar zuen

Apirilaren 8a azpimarratuta geratu da gure egutegian. Martxoaren 17an Tetz Etcheverryk Le Monde frantziar egunkariari egin zionetik, data hori hizpide bilakatu da komunikabide eta gizartean. Etcheverry Luhuson atxilotutarikoa bat da, "Bakearen artisauek" deituriko taldekoa. Beraien asmo eta helburua ETArek armagabetea gauzatzea izan da, Espainiako eta Frantziako Gobernuek bide horretan ez zutelako urratsik emango ikusten baitzuten.

"Bakearen artisauek asmo eta helburua ETArek armagabetea gauzatzea izan da eta da, Espainiako eta Frantziako Gobernuek bide horretan ez zutelako urratsik emango ikusten baitzuten"

aho batez esan dute benetako desarma lortzeko beraien laguntza eskaini eta ematen dutela, bizikidetzarako guztiz garrantzitsua baita. Frantziako alderdiek ere, Le Pen salbu, denek eman diote armagabetezari babesa. Oraindik, nonbait, ez daude armagabetearen zehaztasun guztiak loturik. Diskrezioa ere beharrezkoa baita, baina itxaropentxu egon gaitzen.

Honi lotuta, presoen egoera hizpide bilakatu da. Kartzela legea testuinguruan kokatu beharra dago, ez baita inondik inora betetzen. Orain armagabetearekin, normala da presoen protagonismoa hartzea. Komunikabide eta zenbait politikoren adierazpenetan hori islatzen da. Zenbait egoera humanizatu egin behar dela diote. Humanizazioa dispersioa eta gaixotasun larria duten presoen izan beharko luke. Ikusitakoak ikusita eta entzutekoak entzunda, humanizazio hori gauzatuko denik ez dakit.

Presoen egoeratik haratago prozesua ez da batera erraza izango, hainbeste sufrimendu eragin duen erakunde armatuak ere egia, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa kontuan hartu beharko dituelako. Horren kontaketa egin beharko du. Jakina, beste kontaktak ere beharrezkoak izanen dira, hala nola, estatu terrorismoak edo motibazio politikoagatik sufriarazita-koak. Eta nola ez, hainbat bider eta lekutan eskatzen ari garena, alegia, 36ko Gerran egindako krudelkeriak, Diktatura garaiko errepre- sioa eta 1977aren ondoren emandako atxilotetak, torturak, heriotzak, etab... Bizikidetzak hori dena kontuan hartu behar du. Zailtasunak zailtasun, larunbatekoa lehen urrats bat izango da eta ea gainontzekoak ere etortzen diren.

Apirilaren 29an kontzertua Saroben, Iñistorraren eskutik

Lappa musika taldea Liburuaren egunean

Iñistorra euskaltzaleen biltzarrak, liburuaren eguneko ospakizunen harira, kontzertua antolatu du Urnietako Saroben. Apirilaren 29an izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita. Urnietako **Lappa** eta **Lear** taldeak arituko dira, eta baita Donostiako **Bi zaldi** bikotea ere. Lappa taldeko kide diren **Eneko Bustillo** eta **Eneko Bola** Zulaikaren hitzak jaso ditugu.

Noiz sortu zen Lappa taldea, nortzuk osatzen duzue, eta zein izan da orain arteko ibilbidea?

Eneko Bustillo: 2010eko udan hasi ginen, erdi txantxetan edo. Hasieran nik konposatzen nituen kantak, baina Enekok asko inspiratzen ninduen eta batera abesten genituen kantak bere koadrilaren lokalean. Orain arteko ibilbidea: duela urte bat elkartu, hiru entsegu egin, kontzertu bat eskaini eta maketa bat grabatzeko 7 ordu inguruko (askaria barne) saioa egin.

Deskribatu zuen taldea eta egiten duzuen musika.

Eneko Zulaika: Zoriontasuna. Estilo orokorra pop/rock bezala definitu daiteke, baina baditu metal astuneko ukituak, edota reggaettoa. Letrek beste dimentsioa ematen diote Lappari. Badaukate halako "intrigulisa".

Zeintzuk dira zuen erreferentzia-ko taldeak?

E.Z.: Enekok Ken Zazpi atsegin du. Egia esan, Lapparentzat ez dugu erreferentzia propiorik bilatu, denetarik entzuten baitugu. Bizitzako beste aspektu askotan bezala, ez dizkiegu atek ixten gauza edota bizipen berriei.

E.B.: Enekoemorek -nahi duenak izen horrekin bilatu Google-n- musika bortitza atsegin du, indarra duena, baina Lappan bere alde xarmangarriena



Eneko Bola Zulaika eta Eneko Bustillo Lappa taldeko kideak dira.

ateratzen du. Ez da broma gero!

Norenak dira zuen abestien letrak, ze hizkuntzatan, eta zergai jorrazten dituzue?

E.Z.: Gehienak Enekoemorek dira. Haurtzaroko hainbat trauma eta eta egungo gabezia sexualetatik abiatzen da letrak konposatzerako orduan.

E.B.: Gazteleraz eta euskaraz abesten dugu, nahiko parekatuta. Naturala zaigu, eta kanta gehienetan bi hizkuntzak agertzen dira.

E.Z.: Gaie dagokionez, hasieran soilik umore beltza erabiltzen zuen Lappak. Gero, denuntzia sozial gisa berreraiki genituen kantak, eta gure aurpegiaren poztasun keinua marraztu zen, hasiera batean apur bat perbertsoa ere bazen, egia esateko.

Ze publiko motari zuzendua dago zuen musika?

E.B.: Lapparen musika oso alaia da, melodia atseginak sortzen ditugu, estribillo "pegadizo"ekin. Baina letrak pisu handia dute eta nahiko ilunak direla esango nuke.

E.Z.: Pertsonen gain, animaliek ere ondo jasotzen dituzte armonia hauek. Nire untxiak buztana mugitzen du "Nuntzaude"

abesten dudak bakoitzean, eta ez da txantxa!

Hainbat taldeetan ibiliak izanik, talde honi ibilbide luzea aurreikusten diozue edo momentuko zuen musika zaletasuna asetzeko sortutakoa da?

E.B.: Ibilbide luzea aurreikusten diot. Hori bai, lan intentsitatea egoera pertsonalaren arabera izango da. Bizkaia aldean bizi naiz orain, eta ez horrela ez da erraza talde dinamika hartzea.

E.Z.: Ni hainbat taldetan egon naiz jada, musika nire bizitzaren alderdirik garrantzitsuenetariko bat bilakatu delarik. Etorkizunera begira, ez dakit zehazki zer esan ere.

Jotzean eta abestean zoriontsuak gara. Eta horrek irauten duen bitartean, aurrera!

Bukatzeke, gonbida itzazue herrietarrik apirilaren 29ko kontzertura hurbiltzera.

E.Z.: Nire ustez, arratsalde-pasarako aukera ederra izango da kontzertura gerturatzea.

Larunbat arratsalde baterako plan ezin hobea da. Lear eta Bi zaldi taldeek musika landua eta fina eskainiko dute. Gurekin, agian, tomateak botatzeko aukera izango dute! (kar kar).



Txotx'17

R. ZABALA 943 690 774 Aduna
LARRE-GAIN 943 555 846 Ereñozu-Hernani
OIANUME 943 556 683 Urnieta
GAZTAÑAGA 943 591 968 Andoain
SARASOLA 943 690 283 Asteasu

Joan zen igandean eskaini zuten Basteroko auditorioan

Urki dantza taldearen udaberriko emanaldia



Dantzari helduek Muxikoak eta polkak dantzatu zituzten.

Euskal folkloreak erakustaldi ederra eskaini zuten joan zen igandean, erreperitorio zabala eskainiz: Agurra eta desafioa, Belauntzingoa, makil txikia, Inauteriak, sardinerak, Irradaka, Bizar dantza, Fandangoa eta arin-arin, Lesaka, Leitzako ingurutxoak, dantzaluzea eta Muxikoak eta Polka. Dantza egiteaz gain, abes- tea eta antzeztea egokitu zitzaizkien, eta denerako abilezia badutela erakutsi zuten. Ate joka diren Santa Krutz jaietan eskainiko dute hurrengo saioa.



Dantzari txikiak dantzarako grina bizia erakutsi zuten Basteron.



Emanaldian zehar zozketarako tartea ere hartu zen.



Txantxatik asko duen Bizar dantzarekin barreak egiteko aukera eduki zuten ikusleek.



Dantzari txikiak argazkirako jarrita, bikain dantzatu osten.



Dantzari txikiak Sardinerak dantza eramanean zuten oholtzara.

Kostkasen urteurrena



Urteurrenako ekitaldien aurkezpena Kostkas elkartearen bertan.

Donostiako Kostkas Kultur Elkarte bere sorreraren 50. urteurrena ospatzeko da, eta datozen aste eta hilabetearako antolatu dituen ekitaldien berri eman zuen joan zen larunbatean. Andoaingo musikagileen presentzia nabarmentzeko da egitarauan. Hain zuzen, **Joxe Mari Oiarzabalek** elkartearen ereserkia konposatu du, eta **Joxerramon Berrondo** herrikideak hitza jarri doi ereserkiari. Egitarauan musika kontzertua dago iragarrita maiatzeko eta bertan estreinatuko da ereserkia. Kontzertua **Go-**

ra Kaletxiki txarangaren, Hernaniko **Ozenki** abesbatza- ren eta **Doinu-Zale Akordeoi Orkestraren** eskutik helduko da.

Argazkia 50. urteurrenako egitarauaren aurkezpen-ekitaldikoa da, elkartearen egoitzan. Bertan ageri dira, ezkerretik hasita: **Imanoli Kamio** (Ozenki), **Jexus Ibañez** (Gora Kaletxiki), **Fernando Poyales** (Kostkas Elkartearen lehendakaria), **Eneko Goia** (Donostiako Alkatea), **Joxe Mari Oiarzabal** (ereserkiaren konposatzailea) eta **Joxerramon Berrondo** (ereserkiaren hitzen egilea).

Oroituz ekitaldia larunbatean



Frankismoak Andoainen zapalduetako herritarrek hartuko dira gogoan Alfaro plazan larunbat honetan. Eguerdiko 12:00tan hasiko da Oroituz elkarteak urtero antolatu ohi duen omenaldi ekitaldia.

1936an eraildakoei lore eskaintza egiteaz gain, txalapartariak, bertsolariak eta dantzariak hartuko dute parte. Eta bukatzeko, Musika Banda Errepublikanoak emanaldi berezia eskainiko du.

Zelanda Berria gogoan



Ander Goñi, lune Vallejo, Leire Artecheta Goizane Otegi.

Roger Wstney irakaslearekin Zelanda Berrira ingeles ikastera aurten joatekoak diren ikasleek ekimen ugari prestatu dituzte, bidaiaren

kostuari aurre egiteko asmoz. Etxean makina bat postre egin eta salgai jarri zituzten Juanita Alkaiain plazan joan zen larunbatean.

EUSKARA

Andoain eta Urnieta Korrika

Astearte goizean, Korrika Andoaindik eta Urnietatik igaro zenean, jendetzak korrika eginez harrera bikaina eskaini zion euskararen aldeko lasterketari. Bi herrietan ikasleak, helduak eta adinekoak

bide erdira atera ziren euskararen alde oihu egin eta korrika egitera. Orriotan agertzen diren argazkiez gain, askoz gehiago ikus daitezke aiurri.eus webgunean. Baita bideoak ere.



Aita Larramendi ikastolako ikasleek hartu zuten Andoaingo lehen lekukoa, Sorabillan.



Axeri dantzako kideak Karrika aldean, herrigunerako norabidean.



Mujika, Alberro, Carrere, Zulueta eta Lainez Udalaren tarte osatzen, Rodriguez eta Romerorekin batera.



Ondarreta ikastetxeko haurrak, irakasleak eta gurasoak lekukoa eramaten.



La Salle Berrozpe ikastetxeko adin tarte ezberdinetako ikasleek eraman zuten lekukoa.



Elkarte gastronomikoez lekukoa eraman zuten Urnietarako bidean. Argazkian, Erkizia eta Fernandez.

EUSKARA



Andoingo txalpartariek ongi etorria eman zioten Korrikari, Gokoplazara iristean.



Urnietan Presentacion de Maria ikastetxeko ikasleak kalejiran jaitsi ziren Idiazabal kalera.



Hiazinto Fernandorenaren senideek eraman zuten Aiurriko lekukoa.



Salesiar ikastetxeak ikastetxearen parean hartu zuen lekukoa.



Esnelat enpresako langileak, lekukoaren zain.



Egape dantza taldeko kideak.



Egape ikastola 50. urteurreneko pankarta eta guzti irten zen Korrika.



Udalak hartu zuen kilometroan alkate txikiel lekukoa eramateko aukera eskaini zieten.



Poxta Zahar taldekoek Hernaniraino eraman zuten lekukoa.



KIROL ALBISTEAK

Harria eta familia, uztarri sendoa

Telleriatarren historia ulertzea ezinezkoa da harriarekin duten harreman estua gertutik ezagutzen ez bada. Luixmari aitak hiru hamarkada egin zituen jo eta su harriak jasotzen.

2005ean egin zuen azken jasoaldia plazan, baina ordurako Urtzi seme nagusiak lekukoa hartua zion. Iraitz eta Beñat etorri ziren gero.

Gaur **Urtzi** eta **Beñat** ari dira plazaz plaza, baina nahi luketena baino gutxiago. Ezkor dira harrijasotzea eta herri kirolen inguruan. **Luixmari Telleri**arena da sententzia: "Baserria desagertzen ari da, eta baserriarekin batera desagertuko dira herri kirolak ere". Nortasun agirian Telleria sendiko kideak lasartearrak direla dio. 1986a arte Urnieta zen eremuan bizi ziren, Urnietatik Lasartera doan bidean, Kaxkarro gaina pasa eta kilometro eskasera. Han dago Elkezabal Txiki baserria. Luixmari aitak azkar botatzen du: "Auzoko biztanleok Urnietan geratzeko bozka eman genuen, baina badakik, hemen politikak agintzen dik, eta orduan Lasarte-Oria herria sortzea komeni huan". Luixmarik harreman handiagoa du Urnietarekin. Urtzi eta Beñat semeek ere bai, nahiz eta urnietar edo lasartear izan, garrantzirik ematen ez dioten. Beñatek lagunartea Urnietan du. Urtzik lana Lasarten, baina erosketak Urnietan egiten ditu. Esku-eskura dituzte bi herriak. Pasadizo kurioso bat badu Urtzik, lehen jaunartzea prestatzeko katekesia egiten zueneko: "Urnietako elizara joaten nintzen, baina orduko apaizak, Don Jose Ignaciok, Lasartera joateko aholkua eman zion amari, gertuago nuelako".

Urtzik (31 urte) behi etxalde batean egiten du lana. Beñat langilea da (21 urte). Luixmari aita (55 urte) behi esne kontrolatzaile aritzen da, ganadua identifikatzen. Eta lanak uzten dion aldiro, harriari begiratzen dio. Harriak lotzen baitu Telleria familia. Edo familiak harria. Nondik begiratzen zaion. Harriaren kontua noiz eta nola hasi zen ondo asko gogoratzen du Luixmarik. Urtzik eta Beñatek ere askotan entzun dute istorioa etxean, baina adi entzuten dituzte aitarren esanak: "Etxean kontra nituen, zeren eta nire garaian herri kirol kontu guztia apustuekin-eta lotuta zegoen. Eskolatik nentorren egun batean Joxemari Indianokoa ikusi nuen pentsu zaku bat altxatzen. Orduan 50 kilo zituzten. Nik 12-13 urte nituen. Probatzen hasi nintzen haiekin. Baba zakuak astunagoak ziren, 75 kilokoak. Zaku haiek halako bi helduleku zituzten, eta erlojuen pisuak jar-



Urtzi, Beñat eta Luixmari Elkezabal Txiki aldean duten prestaketa gunean.

tzen nizkien, 10 kilo gehiago pisatu zezaten. Horrela ibiltzen nintzen". Beti erronka. Beti pisu gehiago.

Halako batean baserriko horma batek harri handi bat atera zuen: "Arrastaka, karretillan, nola edo hala... ni baino handiagoa zen, moldatu nuen, eta harekin, egurrean". 16 urte izango zituen. Osaba siestan zegoela egiten zituen lanak, "Ze enteratzen bazen...". Pisatu nuen mandioan zegoen baskula zaharrean, eta 101 kilo. A ze poza nirea! Kabitu ezinik nengo! Tolarera eraman eta han gorde nuen. Horrela hasi nintzen. Jertse zahar bati maukak moztu, sagar zaku batekin halamoduzko txaleko bat egin, eta segi! 60 kiloko bat ba nuen, 73ko beste bat... jaso, bota... beti osaba siestan zegoela. Ni 60 kilo ere ez nintzen izango. 118 ere jaso nituen 16 urterekin".

Halako batean osaba batek Luixmariren jardunaz entzun zuen. Ollamarko Juanito Goenaga Luixmariren izebaren

koinata zen, eta San Pedrotan egin ohi zuten bazkietan enteratu zen zertan zebilen Luixmari. "Handik sortu zen Urnietako plazan egin genuen proba. Proba, edo pikea edo... 1978a zen. Roke Urruzola Elutxetakoa eta Juan Usabiaga Zuatzetakoa izan nituen aurkariak. Herrikoen arteko txapelketa antolatu zuten. Federazioa eta guzti etorri zen! Etxean zer esan? Ikustera ere ez ziren joan... Ez kasorik, ez ezer. Hura ondo atera zen, irabazi egin nuen, 62 kiloko harriarekin. Irabazi nuen pike huragatik trofeorik ere ez zidaten eman. Zuzenean etxera etorri nintzen, untxiak gobernatzera. Gero jakin nuen, izebaren bidez, gaizki esaka aritu zirela nire kontura, botaka-eta aritu nintzela proba bukatu ondoren... dena gezurra".

100 KILOKO HARRIA

Hurrengo urtean errepikatu egin zen dema hura, 100 kiloko harriarekin, San isidro egunez. Don Jose eta eta Don Jo-

se Ignacio apaizak lekuko. "100 kiloko harria jasotzeko indarrik ez nuela esaten zuten... entrenatzen hasi ziren, baino inork ez zuen altxa. Herrikoa izan behar zen jasotzailea, txapelduna izateko, eta 100 kilo altxa behar. Nik bakarrik altxa nuen, eta Berastegiko morrosko bat ekarri zuten, propio. Hari ere irabazi nion. Garai hartan 100 kilo jasotzea sekulakoa zen. Orain 100 kilo jende askok altxatzen du, seme biek aise. Garai hartan nire adinarekin inork ez. 55 aldiz jaso nuen 100 kiloko harria hiru minutuko bi txandatan. Nik orduan orain semeek egiten dituztenak egin izan banitu, bueno..." Oroitzapen aberatsak, Luixmarik dituenak, urte asko pasata ere. Azkena plaza atera zela, 2005ean. 27 bat urte egin zituen egurrean. Zehar-kalteak ere sufritzen omen ditu gaurdaino: "Gerrietatik-eta, batez ere".

Tamainako lorpenak gauzatuta, harriak jasotzetik bizi ote zen Luixmari



KIROL ALBISTEAK

"Sosik ez du ematen, baina xomorroa sartua daukagu, eta ezin harririk gabe bizi. Entrenatzen ez dudana egunean eguna arraroa egiten zait"

Urtzi Telleria

Telleria? "Ke ba!", erantzuna. "Gure garaian Ostolazarengatik-eta esaten zuten, apustuen bitartez etxeak eta erosten zituela... ni ez. Ni hemengo erreka zuloetan ibiltzen nintzen altxatzeko moduko harriak bilatzen! Gustuko zaletasuna zen, batez ere. Karnetik ez neukan, harriak bilatzen nituen, lehengusuari traktorea eskatu, eta segi. Bi semeak ez, hiru izan ditut. Iraitz beste semea ere hasi zen, baina plazan nerbioak kontrolatu ezin eta utzi egin zuen".

LUIXMARI MAISU, URTZI ETA BEÑAT IKASLE

Espero zitekeen zerbait zen, baina hiru seme izan, eta hirurak harriari heltzea ere ez da oso ohikoa. Urtzik eta Beñatek segitzen diote aitaren bideari, egun, eta hala nahi dutelako. Aitak ez omen zien behartu: "Guk hala erabakita hasi ginen. Jakina, etxean zer ikusten duzun...". Urtzi oinez ikasi orduko hasi zen harriekin! Luixmarik kendu dio hitza: "Dena eramaten zuen bizkarrera: baloiak, Colacao poteak...". Ama lotsarazteraino supermerkatuan: "Dena bizkarrera eramaten nuen, eta jendea gure bueltan batzen zen. Fenomeno ezaguna izan zen Lasarte eta Urnieta inguruan. Nire bila etortzen zen eskolara, erosketak batzuk-eta egin, eta ni ba gauzak altxa eta altxa...".

Luixmarik semeek beste bideren bat aukeratu izan bazuten ere babestu egingo lituzkeela dio. Eta pozik dago, "garai batean nik irakatsi nielako, baina orain ni ari naizelako haiekin ikasten entrenamenduetan-eta". Gazteen bikoteek ere badakite zer dagoen. Harria bikotea baino lehenago ote dago? "Ez, ez, hainbestearaino ez. Bikotearekin hasi aurretik bazekiten zertan ibiltzen ginen", dio Urtzik. Luixmarik kasuren bat ezagutzen omen, 'edo ni edo harria' egoeran egon izan dena...

Eskola kirol garaian pixka bat albortu zuen harria Urtzik: futbola, eskubaloia, bizikleta... diziiplina batzuk probatu zituen, baina ez zen moldatzen: "Lagun artean nengoelako egiten nuen, eta 12 urterekin buru-belarri hasi nintzen harriekin". Dagoeneko 20 urterako doa harriak jaso eta jaso (31 ditu orain). Deneetik pasa omen du. "Urte oso onak, beste batzuk txarrak. Azkenekoak nahiko ondo, nahiz eta apustu bat galdu genuen". Esne behi etxalde batean lan egiten du, 06.30an hasi, 13:00ak arte, eta arratsaldean berriro, 15:00tik 18:30ak arte. Eta gero entrenamenduak datoz. Batzuetan gimnasioa, besteetan harriak... eta beti,



Urtzi Telleria aitaren etxean dituen harrien artean eserita.

edo ia beti, zintzo demonio. "Gustatu egiten zaigu, bizi egiten dugu, eta horregatik egiten dugu. Sosik ez du ematen, baina xomorroa sartua daukagu, eta ezin harririk gabe bizi. Entrenatzen ez dudana egunean eguna arraroa egiten zait". Oharkabean, Beñat eta Iraitz anaia gaztegoen eredu izan da. "Lagundu diet, baina gehienbat aitak izan du ardura hori". Bi anaia gazteak Urtzi baino handiagoak dira fisikoki, eta markak-eta Urtzi baino gazteago hausten hasi ziren.

Beñat oso gaztea da, 21 urte baino ez ditu: "7-8 urterekin hasi nintzen. Aita eta Urtzi ikusten nituen eta horrela hasi nintzen, suabe. 13 urte arte pilotan ere ibili nintzen, eta 15 urterekin lehen txapelketan parte hartu nuen. Luixmarik isiltasuna eragin du berriro, bere analiarekin: "Abilidade handiena Beñatek dauka gurean, baina *juergista* samarra da. Beñati ikusten zaio gaitasuna badiela, harria nola botatzen duen lurre-ra, jaso eta gero". Nola neurtzen da abilidadea harri jasotzean? "Ez da kiloetan neurtzen, jasoaldietan eta erlojuan baizik", dio Luixmarik. Urtzik eta Beñatek jasoa dute 200 kiloko harria. 200 kilo! Idatzi egin baino askoz errazago egiten da. Herrialdeko txapelketetan 200ekoa, 175eko zilindroa, 150eko kubikoa eta 125eko bola jaso behar dira 3 minututan. 80 kilo baino gutxiago pisatzen du Beñatek: "100 eta 125 kilokoekin moldatzen naiz ondoen".

Erakustaldietan-eta denetarik egiten dute. Biak, bakarka... Luixmari alboan izaten dute ia beti. Zer sentitzen du Beñatek plazan harria bizkarreratzen dutenean? "Niretzat zaletasuna da bultzatzen nauena. Hobby bat da. Lagunartean ambiente pixka bat sortzeko aitzakia, ba futbolaren inguruan sortzen den bezala. Neurri apalagoan, baina antzera". Harri jasotzearen inguruko afizioa apala da


Luixmari aitaren ahotan: "Baserria bukatzen ari den heinean ari da herri kiroltako afizioa bukatzen. Guk gure garaian bati edo besteari heltzen genion: aizkora, harria... beti desafioka ibiltzen ginen: 'ez zioz potrorik' eta halakoak... orain ez dago halakorik, gazteek ez dute guk geneukan ekimenik, ezta gutxiago ere. Orain dena da karrera autoak, futbola, dozenaka kirol... Orain dela 30 urte ez zegoen halakorik!".

HARRI GARESTIAK

Harriak eskatu egiten dira, egun; Bergaran, hain zuzen ere. Apustua egiteko eskatu dute azkena: 1.050 euro ordaindu dute. "Eta eskulekuen konpontzea, 200 bat euro", Urtziren azalpena. Bizitzeko ematen duen galdetzeak lotsa pixka bat ere ematen du. "Ezta... Erakustaldiko 150 ordaintzen badigute kontent! Bizkaia aldera bada, ba gehixeago. Iaz 7-8 bat erakustaldi egingo nituen, harri bat ordaintzeko nahikorik ez". Askok jaitzi omen da plazaz plaza ibiltzearena. Txapelketetan ere parte hartzen dute, baina horietan ez dago dirurik. Urtzik irabazi duen sari mamitsuena Albizuri txapelketakoa izan zen, 1.200 euro jaso zituen: "Kalkulatu mediku, masajista, laguntzaile eta gasoil gastuak eta berehala jabetuko zara hemen poltsikoratu ez, jarri egin behar dela".

Baina, ezin utzi. Xomorroa oso sartuta dute: "Niretzat norberak bere mugak gaintzea bezalakoa da harria berdintzea. Gaur bi jaso eta bi hilabetera lau jaso, hobekuntza sententzia ikaragarria da", dio Beñatek. Luixmariren ustez, "futboleko horrelakorik neurtzea ez da hain erraza. Harriaren neurgailu hori badago". Eta hobetzen segitzeko tarteak dutela sinisten dute, beraz ez galdetu noiz utziko duten harria txokotan betirako, erantzunik ez baitute.

AIMAR IRIGOIENEN ITZALA



"Luixmarik eta bere semeek dena eman didate, naizen guztia. Txapelketa eta apustu garrantzitsu guztietan laguntzen didate"

Aimar Irigoien

Luixmari Telleriak ez du bere burua entrenatzailetzat hartzen. "Entrenatzaileak futbol taldekoak dira. Nik titulurik ez dut. Nik lagundu egiten dut, eta dakidan apurra erakutsi". Plazaz plaza Aimar Irigoien handiari aholkuak eman eta eman ezagun egin dira Telleriatarrak. Tratuan, hartu-emanean nola hasi ziren entzun eta barre algarak entzun dira Zelai-Eder etxean: "Jurgan ezagutu ginen, Oialumen", dio Urtzik. Aimarri aita hil zitzaion, etxean bakarrik geratu zen, eta harri handiekin hasi nahi zuela esan zidan. Horrela hasi zen kontua.

Aimar astean bitan etortzen da Hondarribitik Lasartera. Gimnasio berri bat eraikitzen ari dira Zelai-Ederren, eta beheko solairuan ditzuten dozenaka harriak txukuntxukun jarri nahi lituzkete. Aimarrek meritua ematen dio Telleriatarrei: "Hauengatik izan ez balitz honezKero harriak utzita neuzkan". Luixmarik beharrezkoa den egurra ematen omen dio, baina garbi dio errezildarra fenomeno bat dela: "Adunako apaizak lagundu izan bali ere, egurra emango lieke aurkari denei. Mutil honek berezko gaitasuna du, artista da. Gainera, gu ere ez ginen hain ezagunak izango Aimarrek aritu izan ez bagina. Aimarrek jende asko erakartzen du, komunikabideak...".

Aimarrek kontrapuntua: "Luixmarik eta bere semeek dena eman didate, naizen dana. Txapelketa eta apustu garrantzitsu guztietan laguntzen didate". Harreman ona dute elkarren artean, eztabaidarik gabe, eta ondo moldatzen dira. "Bakoitza bere kabuz ibili izan bagina baino hobeto gaude elkarrekin". Jarrai dezatela, beraz, elkarrekin.

ELKARRIZKETA

Ixiar Ansa, Galardiko hezitzailearen erretiroa

Ixiar Ansa oraindik orain hartu du erretiroa, 39 urtez Galardi Udal Haur Eskolako lehenbizikoetako hezitzailea izan ostean. Lan munduan erretiroa hartu arren ez dago geldirik egoteko. Aitortu

duenez, gizakia aberasten duten zaletasun ugari ditu zain, eta ez hori bakarrik, Andoaingo kultur giroan bere hondar alea jartzeko gozoz sentitzen da.

Zer moduz izan zen lantokian egin zizuten agurra?

Ixiar Ansa: Bi agur egin dizkidate, dena esatera. Galardin bertan lehenbizikoa; festa txikia antolatu zuten lankideek haurrekin batera, eta gozatzeko eta hunkitzeko tenorea eduki eman zidaten: aureskua, kantua, oparia... Emozioz beterikoa izan zen, betirako gogoa hartzeko festa 39 urtez bertan lanean aritu eta gero.

Hurrena, Udal langileekin egin ohi den bazkaria etorri zen; hunkigarria izan zen hura ere. Izan ere, 2010az geroztik Haur Eskolako zuzendari izan naiz eta urte horietan Udaletxeko langile askorekin harreman zuzena edukitzea egokitu zait. Halako agurra jasotzea, benetan estimatzeko gauza da.

Etorkizunean denbora gehiago edukiko duzu zure gauzetarako...

I.A.: Lasaitasun pixka bat eskatu diot nire buruari hasteko eta behin, baina makina bat zaletasun eta ideia badauzkat: irakurketa, zinea, kultur kezak asetzeko ikastaroak, oinezko ibilaldiak, bidaiak... Oreak bilatu beharko dut, ez nedin gehiegi estutu. Lau haurren amona banaiz, eta hori ere ezingo dut ahaztu.

Haur eskolan urteak eta urteak pasa eta gero, orain biloben zaintzarako gogorik geratzen al zaizu?

I.A.: Bai noski, gustukoak baitituz haurrak! Nolanahi ere, nahiago dut horien ondoan bizi, gertutasuna erakutsi eta edozein ezusteko gertatzen zaien okasiorako laguntza eskaini.

Andoaingo kultur giroan murgilduta ibili izan zara beti...

I.A.: Bai, eta horri eutsi nahi diot, ahal izanez gero sakonduz. Pertsona ekin-tzailea sentitzen naiz, eta Andoaingo gizarteari ekarpenak egiteko gogo biziz nagoela erretiroa heldu zait. Oraintxe badaukat pentsamenduan elkarte bateko kide eragile gisa hastera.

39 urtetako ibilbidea aztertze denbora emango zizun honezkero, eta zer eman dizun hausnartzen hasi...

I.A.: Pertsonalki gehien aberastu nauten bi arlo aipatuko nituzke. Batetik, lan giro bikaina ezagutu dut betidanik Galardin, eta eskertzekoa da hori; ezinbeste-



Ixiar Ansa.

“Pertsona ekin-tzailea sentitzen naiz, eta Andoaingo gizarteari ekarpenak egiteko gogo biziz nagoela erretiroa heldu zait”

koa esango nuke hezkuntza proiektu batek aurrera egiteko. Bestetik, haurrekin etengabe jardun beharra egokitu zait, eta horiek transmititu dizkidaten sentimendu eta emozioak aparteokak izan dira. Haur horien atzean familiak egon dira, eta horiekin harreman estu eta pozgarria eduki dut, gainerako hezitzaileen antzera; kasu batzuetan gainera, geure besoetatik pasatakoak gerora guraso bihurtu direnean hona ekarri izan dituzte beren haurrak; ez dakizu zenbateko poza ematen duen belaunaldien transmisio horrek!

Bokazioko lana al da Haur Eskolako hezitzaile izatea?

I.A.: Ezinbestekoa da haurren garapen kognitibo eta emozionala, eta hezitzaileak zeharo inplikatu beharra dauka

arlotan, jai du bestela. Haurra besoetan hartzen duzun une beretik, atxikimendu afektibo eta emozional handia sortzen da bien artean. Egunez egun haurrak erakusten duen garapen pertsonalaren eragile, lekuko izateak satisfazioa eta harrotasuna ematen ez badizu, esango didazu... Gainera, langintza honek birziklatzeko prest egotea eskatzen dizu: arlo pedagogikoan ematen diren berrikuntzak eta proposamenak jarraitzea, gizartearen ematen diren aldaketa soziologikoak kontuan hartzea...

“Galardi Haurtzaindegia” aipatzen jarraitzen dugu maiz...

I.A.: Bai, egia da kontzeptu hori oso barneratuta daukagula oraindik. Kosta egiten zaigu Galardi Haur Eskola dela onartzea, eta Andoaingo herriari hezkuntza proiektu bat eskaintzen diola. Bere historian atzera egiten badugu, esan behar da 1977an sortu zenean, helburu asistentziala eman zitzaizela ofizialki, beste herrietan zeuden antzeko proiektuei bezala. Emakumeak lan

“Ezinbestekoa da haurren garapen kognitibo eta emozionala, eta hezitzaileak zeharo inplikatu beharra dauka arlo horretan, jai du bestela”

munduan mozketarik eduki ez zezan jartzen zen arreta orduan, eta Galardiren Udal zerbitzua haurtzaindegi gisa eraiki zen, haurrak zaintzeko leku gisa soilik, alegia. Oker ez banago, diru laguntzak Espainiako Lan Ministeriotik jaso ziren lehen urte haietan. Gauzak horrela, hasiera-hasieratik aldarrikatu nahi izan zen haurren eboluzio pertsonalean zenbateko garrantzia duen 0-3 urte bitarteko biziak. Besteak beste pedagogiak bere garrantzia zeukala, hezitzaileek formakuntza profesionala eta titulazioa behar zutelako... Borrokatu behar izan zen, baina ikuspegia aldatzea lortu zen, hots, hezkuntza sistemen aitormen ofiziala jasotzea.

Aspaldiko urtetan Galardi Udal zerbitzua da, eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko hezkuntza sistemak kokatzen da. Bertako hezitzaileak Udal langileak dira, nahiz eta udal langileei lotutako lan hitzarmenean eranskin baten moduan jaso.

Gaur egun Galardik Otik 2 urte bitarteko eskaintza dauka. Zenbat haur daude?

I.A.: Berrogeita hamarren bat haurren bueltan ibiliko da, eta bederatzi hezitzaile eta laguntzaile dira horietaz arduratzen direnak. Eboluzio bat egonda matrikulazioen arloan. Galardik 0-3 urtetako eskaintza zuenean eskaera handia izaten zen eta itxaron zerrendan egotea ere egokitzen zitzaizen haurrik txikienei. Orain urte batzuk 0-2ko eskaintza jarri zenean, hilabeteetako haurrentzako plazak gehitu ziren. Azken urteetan matrikulazioa kopurua beste fenomeno berri bat bizitzen ari da, gizartearen aldaketa soziologikoekin eta krisiarekin zerkusia duena. Azken batean Galardiren eskaintza ez da derri-gorrezkoa, eta familiek faktore gehiago hartzen dituzte kontuan aukera horri heldu ala ez erabakitzerakoan: guraso batzuk gehiago baloratzen dute haurren lehen bizialdia gertu-gertutik bizitzea, lan munduko baldintzak ez dira lehen adinakoa, soldata bazuak...



LIBURUAREN EGUNA

★ Urnieta ★

POSTUA • 11:00 - 14:00
• SANJOAN PLAZA

Euskal liburuaren salmenta. Maiatzaren 26ko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldirako sarrerak. Sarobeko kontzerturako sarrerak.

• 19:00
• SAROBE **KONTZERTUA**

3
euro

LAPPA (Urnieta)
LEAR (Urnieta)
BI ZALDI (Donostia).

SARRERAK SALGAI. Apirilaren 24tik aurrera: Xauxar eta Bikain (Sanjoan plaza). Egunean bertan: leihatilan, 18:00etatik aurrera.

APIRILAK 29, LARUNBATA



Antolatzaile:



Laguntzaile:

